



Ak1-2004

1/2004 PLENOKO AGIRIA

2004ko Urtarrilaren 29an burututako Ohizko Udal Plenoaren agiria

Aizarnazabalen, bi mila eta lau garreneko Urtarrilaren hogeita bederatzian, gaueko bederatzia zirenean, bildu ziren Udaletxeko Areto Nagusian, ondoren idazten diren Jaun-Andreak, Udal Ohizko Plenoa egiteko asmoarekin, Begoña Gorrichategui Osa Idazkariaren laguntzarekin.

Bertaratu ziren Jaun-Andreak:

Alkatea: JOSE FRANCISCO LARRARTE AGIRRE.

Zinegotziak:

**M^a CARMEN ARRIETA BARRENA.
JOSE ANGEL OÑEDERRA OLAIZOLA.
ASIER ALKORTA ARRUTI.
AROA ARTOLA SALABERRIA.**

GAI ORDENA

1. Azkenengo burutu zen Udal Plenoaren Agiriaren zirriborroa onartzea hala badagokio.
2. Ordainketa eta kontuak.
3. Obra baimenak
4. Iharduera baimena.
5. Baltasar Etxabe kaleko urbanizazio obren Projekto tekniko eta Baldintza ekonomiko administratiboak onartzea.
6. ELAk eta LABek aurkeztutako idatzia, Langileen lan baldintzak negoziatzeari buruzkoa.
7. Aizarnazabalen, "website" bat egiteko proposamena, entreWEBS enpresak aurkeztutakoa.
8. "Kortaxar"ur depositoan, mikro errepetidorearen aurrekontua.
9. "Atari-Soro" pilotatokian orduen erreserbak egiteko era.
10. Zergen ordenantzetan aldaketak.

1.- AZKENENGO BURUTU ZEN UDAL PLENOAREN AGIRIAREN ZIRIBORROA ONARTZEA HALA BADAGOKIO.

Alkateak Udal Plenoa zabaldu ondoren 2003ko Azaroaren 27an burutu zen Udal Plenoako Agiriaren zirriborroa onartzeko oztoporik zegoen galdetu ondoren ahobatez onetsi zen.

2. ORDAINKETA ETA KONTUAK

| IZENA | Fak. Zenb. | KONTZEPTOA | EUROAK |
|--------------------------|-------------------|------------------------------------|---------------|
| Garatzabal Constr. SL | 5-04 | Lan deseberdinak. | 8.547,56 |
| Gizarte Larrialdiak | Laguntza | Ana Iribar eta alaba. | 1.125,17 |
| Gipuzkoako Urak | 03VALT325 | Mendi Txikiko depositoa | 434,85 |
| Gipuzkoako Urak | 04VACAN2 | Azpiegitura kanona. 1º zatia/2004 | 8.958,25 |
| Arrona Hnos, SL | 39823 | Erositako material desberdina | 901,92 |
| Comercial Urratz, SL | 240102 | Hormigoia Zubialderako | 798,65 |
| Kimu bat S. | 22/04 | Landere eta zuhaitzak | 618,61 |
| ARANZADI | 2001080470 | DVD Legedia administratiboa | 784,16 |
| Jose Manterola Iburguren | 18-03 | Zubialden barandaua jartzen | 938,74 |
| Agerre Instalakuntzak | 101/2003 | Maixuko eta Etxabe Errotako argiak | 751,04 |
| Agerre Instalakuntzak | 11/2004 | Konponketak | 1.665,53 |
| Agerre Instalakuntzak | 10/2004 | Gabonetako argiak | 1.627,25 |

3.- OBRA BAIMENAK

- **Espediente zenbakia: 26/2003.** Eskatzailea: Julian Larrañaga Oñederra. Obra: Narbazta baaserriaren ondoan, zuloa bete eta explanada bat egin. Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga: 120,00 € Udaleko Arkitektoak bere txostenean ezarritako baldintzak bete beharko ditu.
- **Espediente zenbakia: 1/2004.** Eskatzailea: Aizarnazabalgo Parrokia (Txomin Zabaleta). Obra: Herriko Plaza, 7an Erretore etxea botatzea Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga: Salbuetsita. Udaleko Arkitektoak bere txostenean ezarritako baldintzak bete beharko ditu.

5.- IHARDUERA BAIMENA.

❖ Iharduera espediente zenbakia: 3/2002.

Eskatzailea: Jose Miguel Barandiaran Martínez. Iharduera: Abeltzaintza ustiatagia. Kokapena: Astarre baserriaren ondoan. Udalak Iharduera baimena ematea erabakitzen du. Establezimentuak irikitze lizentziak ematearen tasa 235 €

❖ Iharduera espediente zenbakia: 5/2003.

Eskatzailea: Nicolas Alba Rico. Iharduera: Eskultura tailerra. Kokapena: Erribera, 4. Udalak Iharduera baimena ematea erabakitzen du. Establezimentuak irikitze lizentziak ematearen tasa 110 €

5.- BALTASAR ETXABE KALEKO URBANIZAZIO OBREN PROJEKTO TEKNIKO ETA BALDINTZA EKONOMIKO ADMINISTRATIBOAK ONARTZEA.

Gaiordenarekin jarraituz, Korporazioa osatzen duten kideen gehiengo absolutuz, «**Baltasar Etxabe kaleko eraldaketa obrak**» burutzeko lanak enkante publikoaren bidez eta kontratatzeko espedientea tramitean jartzea erabaki zuen, baita kontratuari dagokion Baldintza Ekonomiko-Administratiboen Plegua onartzea erabakitzen da.

Plegu hori jendaurrean ikusgai jarriko da zortzi egunez, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara eman ondoko egunetik aurrera, haren aurrean nahi bezain beste erreklamazio bideratu ahal izan daitezen.

Aldi berean, lizitazio publikoa iragartzen da, nahiz lizitazioa atzeratu egingo den beharrezkoa ikusten bada, baldintza pleguaren aurka erreklamazioak aurkezten badira.

1. Esleitzailera:

a) Erakundea: **Aizarnazabalgo** Udala.

2. Kontratuaren xedea:

a) Egin beharrekoa: “**Baltasar Etxabe Kaleko eraldaketa**” obrak burutzera.

b) Lote banaketa: Ez.

c) Burutzeko epea: **5 hilabete**.

3. Tramitazioa, prozedura eta adjudikazio modua:

a) Tramitazioa: Ohikoa.

b) Prozedura: Irekia.

c) Modua: Enkantea.

4. Lizitazioaren oinarriko aurrekontua:

Zenbateko osoa: **320.738,32 Euro**.

5. Bermeak:

a) Behin-betikoa: Adjudikazio prezioaren %4.

6. Dokumentazioa non eskuratu:

Aizarnazabalgo Udaletxean 943.89.70.53 telefonoan.

7. Eskaintzak eta partehartze eskaerak aurkezteko modua:

a) Aurkezteko azken eguna: **26** egun natural, iragarki hau argitaratzen den biharamunetik.

b) Aurkeztu beharrezko dokumentazioa:

—Sobre A: Plegu administratiboen **17**. klausulan eskatutakoa.

—Sobre B: Proposamen ekonomikoa, eranskinean adierazten moduan.

3. c) Aurkezteko lekua:

1. **Aizarnazabalgo** Udaletxea.

2. Helbidea: **Herriko Plaza, 1**

3. Herria eta posta kodea: **Aizarnazabal 20.749**.

8. Eskaintzen irekitzea:

a) Erakundea: **Aizarnazabalgo** Udala.

b) Helbidea: **Herriko Plaza, 1**

c) Herria: **Aizarnazabal**

d) Data: Eskaintzak aurkezteko epea amaitu eta lehenengo lanegunean.

e) Ordua: 9:30etan.

9. Iragarkien gastuak:

Esleipendunaren kargu.

«proposamen ekonomikoa»

..... Jn./And. helbideratua eta Posta Kutxatila
, N.A.N duenak, eta telefonoa, bere gaitasun juridiko eta
 iharduteko gaitasun osoarekin, bere izenean (edoen izenean,
en helbideratua Posta Kutxatila
 telefonoa eta N.A.N edo CIF duena. **“Baltasar Etxabe Kaleko Eraldaketa”** obrak egiteko
 enkantea ireki duela jakin dudala eta ondoko adierazpenak egiten ditut:

1).....eurotako prezioan eta% BEZari dagozkionak,ko epean Obra
 exekutatzeko hitza ematen dudala, prezio honetan sartuta ulertzen direlarik kontzeptu guztiak, zergak,
 gastuak, tasak eta arbitrioak eta kontratistaren hobari industrialak barne.

2)Proiektua ezagutzen dudala, bere edukinarekin, baita kontratazioa arautuko duen Baldintza Plegua eta
 beste dokumentazio guztia zeintzuk espreski asumitzen ditudan eta bere osotasunean onartzen ditudan.

3)Ordezkatzen dudana enpresak bere irekitze, instalazio eta funtzionamendurako indarrean dagoen
 araudiak eskatzen dituen ezaugarri eta betebeharrak guztiak betetzen dituela.

Aizarnazabalen, 2004ko.....

Sinadura

6.- “ELA”K ETA “LAB”EK AURKEZTUTAKO IDATZIA, LANGILEEN LAN BALDINTZAK NEGOZIATZEARI BURUZKOA.

Ondoren, ELA eta LAB sindikatuek aurkeztutako idatzia irakurri zen, bertan, Udalarik
 eskatzen diote langileen lan baldintzak negoziatzeko prest agertzea, akordioak lortzeko
 borondate argiz. Udalak adierazten du bere aldetik prest dagoela negoziatzeko.

7.- AIZARNAZABALEN, “WEBSITE” BAT EGITEKO PROPOSAMENA, ENTREWEBS ENPRESAK AURKEZTUTAKOA.

Gaiordenarekin jarraituz, Entrewebs enpresak Udal honi aurkezten dion proposamena
 irakurtzen da, bertan adierazten da, interneteko orrialde baten bidez, herriko zenbait berri eta
 datu kontsultatzea egoingo litzakela.

Aurrekontua, kontutan hartuz, herriko enpresakin hitz egitea erabakitzen da,
 aurrekontuaren zati bat hauek kontura izaten bada, proiektu hau aurrera eman ahal izateko.

8.- “KORTAXAR”UR DEPOSITOAN, MIKRO ERREPETIDOREAREN AURREKONTUA.

Zubialden bizi diren herritar batzuk, telebistako kanal guztiak ondo ez dituztela ikusten eta, Udal honetara etorri dira laguntza eske. Nola aurre egin arazo honi aztertu ondoren, zera erabakitzen da:

1. Kortaxar ur depositoan dagoen Zestoako Txiriboga auzoko biztanleek ikusteko antena kendu eta mikrorepetidore txiki bat jarri, Zestoakoek eta Aizarnazabalgoek ikusteko.
2. Hiru aurrekontu eskatu.
3. Zestoako Udala eta Aizarnazabalgo Udalaren artean ordaindu jartzen dena.

9.- “ATARI-SORO” PILOTATOKIAN ORDUEN ERRESERBAK EGITEKO ERA.

Orain arte Atari Soro Pilotatokiko zerbitzuak erabiltzea gatik ordaintzen zena, Uztarri tabernan kontrolatzen zuten, bertan giltza eman, hartu eta kobrakuntzak eginez.

Zerbitzu hau gehiago ez dutela egin nahi eta urte honen hasieratik, Udal honen gain dago lana, beraz, eta ahalidan ondoena zerbitzua eskeini asmoz, arau hauek onartzen dira:

1. Erreserba orduak hartzeko Udaleko idazkaritzan emango beharko dute izena interesatuek eta banketxeko kontu zenbakia, ondoren aldageletako giltza emango zaie.
2. Federaziokoek, Zumaiako klubean daudenak, erabili ahal izango dute doain ostegunetan arratsaldeko 8etatik 9etara.

10.- ZERGEN ORDENANTZETAN ALDAKETAK.

Aizarnazabalgo Udal Plenoak, 1993ko urtarrilaren 29an, Etxez-Etxeko Laguntza Zerbituzaren Erregelamentua onetsi zuen, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 1993ko Ekainaren 16an.

Kontutan izanik, 30 artikuluan Onuradunaren ekarpen ekonomikoa arautzen dela, 2004 urtean zehar ondorengo taula ezartzea erabakitzen da:

| HILEROKO DIRUSARRERAK MODULO PERTSONALA | | ONURADUNAREN EKARPENA ZERBITZU KOSTUAREN GAINERA (5,58 €) |
|--|----------|--|
| 356,00 | 406,85 | % 10 |
| 406,86 | 457,71 | % 20 |
| 457,72 | 508,57 | % 30 |
| 508,59 | 559,43 | % 40 |
| 559,44 | 610,29 | % 50 |
| 610,30 | 661,13 | % 60 |
| 661,14 | 711,99 | % 70 |
| 712,00 | 762,85 | % 80 |
| 762,86 | 1.027,12 | % 90 |
| 1.027,12 | Gorakoa | % 100 |

Eta beste gairik ez zegoela ikusi ondoren, Udal Pleno hau gaueko hamarrak eta hogeita bostean amaitu zen eta Idazkaria naizenez ziurtatzen dut Alkatearen On Eritziarekin.

O.E.
ALKATEA,

IDAZKARIA,